sierra	zerra
soplete	soplete
taladradora	zulatzeko makina
taladradora (eléctrica, portátil)	zulagailu
taladro (manual, de carpintero)	daratulu
tenaza	kurrika
tornillo	torloju
tuerca	azkoin






Especies marinas



Especies marinas

abadejo	<i>Pollachius pollachius</i>	abadira
aguja	<i>Belone belone</i>	akula
almeja	Puede pertenecer a varias especies	txirla / muxila
anchoa	<i>Engraulis encrasicolus</i>	antxo
anguila	<i>Angilla angilla</i>	aingira
arenque	<i>Clupea harengus</i>	sardinzar
atún	<i>Thunnus thynnus</i>	atun / hegalabur
bacaladilla / perlita	<i>Micromesistius poutassou</i>	bakalada / perlita
ballena	Puede pertenecer a varias especies	balea
besugo	<i>Pagellus bogaraveo</i>	bisigu
boga	<i>Boops boops</i>	boga
bogavante	<i>Homarus gammarus</i>	abakando / misera
bonito	<i>Thunnus alalunga</i>	hegaluze
breca	<i>Pagellus erythrinus</i>	lamote
buey	<i>Cancer pagurus</i>	buia
caballa / verdel	<i>Scomber scombrus</i>	berdel
cabra	<i>Serranus cabrilla</i>	kraba
calamar	<i>Loligo vulgaris</i>	txibia
caracolillo	<i>Littorina littorea</i>	karrakela/magurio
carbonero	<i>Pollachius virens / Gadus virens / Merlangius virens</i>	ikazkin
carioca	<i>Merluccius merluccius</i>	karioka
chicharro / jurel	<i>Trachurus sp.</i>	txitxarro
choquito	<i>Sepia officinalis</i>	txoko txiki
cigala	<i>Nephrops norvegicus</i>	zigala
cococha		kokotxa
congrío	<i>Conger conger</i>	itsas aingira
corcón / lisa / muble	<i>Chelon labrosus</i>	korrokoi / lazun
delfín	Puede pertenecer a varias especies	izurde
dorada	<i>Sparus aurata</i>	urraburu
erla	<i>Lithognathus mormyrus</i>	erla
faneca	<i>Trisopterus luscus</i>	paneka handi
gallo	Puede pertenecer a varias especies	oilar
gamba	<i>Parapenaeus longirostris</i>	ganba
japuta	<i>Brama brama</i>	papardo
jibia	<i>Sepia officinalis</i>	txoko
jurel / chicharro	<i>Trachurus sp.</i>	txitxarro
langosta	<i>Palinurus sp.</i>	otarrain
lenguado	<i>Solea solea</i>	mihi-arrain
liba / merlán	<i>Merlangius merlangus</i>	liba
lisa / muble / corcón	<i>Chelon labrosus</i>	korrokoi / lazun
locha	<i>Cobitidae (fam.)</i>	mazkar
lubina	<i>Dicentrarchus labrax</i>	lupia
macarel	<i>Scomber (pneumatophorus) japonicus</i>	makaela
marrajo / tiburón	<i>Lamnidae (fam.)</i>	marrazo
maruca	<i>Molva molva</i>	berruenda handi
mediana	<i>Merluccius merluccius</i>	tarteko legatz
merlán / liba	<i>Merlangius merlangus</i>	liba
merluza	<i>Merluccius merluccius</i>	legatz
mero	<i>Epinephelus guaza</i>	mero zuri
mojarra	<i>Diplodus vulgaris</i>	muxar

muble / corcón / lisa	<i>Chelon labrosus</i>	korrokoi / lazun
navaja	<i>Ensis siliqua</i>	datil
nécora	<i>Liocarcinus puber</i>	txamar / nekora
nécora	<i>Liocarcinus puber</i>	nekora / txamar
orca	<i>Orcinus orca</i>	ezpalarta
palometa / pámpano	<i>Trachynotus ovatus</i>	itsas potxu
palometa roja	<i>Beryx decadactylus</i>	bisigu ahogorri
pámpano / palometa	<i>Trachynotus ovatus</i>	itsas potxu
pancho	<i>Pagellus bogaraveo</i>	pantxo
percebe	<i>Lepapidae (fam.)</i>	lanperna
perlita / bacaladilla	<i>Micromistius poutassou</i>	bakalada / perlita
pescadilla	<i>Merluccius merluccius</i>	merlenka
pez espada	<i>Xiphias gladius</i>	ezpata-arrain / txitxi-ezpata
platija	<i>Platichthys flesus</i>	platuxa
pulpo	<i>Octopus spp.</i>	olagarro
quisquilla	Puede pertenecer a varias especies	izkira
raba		arraba
rape	<i>Lophius sp.</i>	zapo
salmón	<i>Salmo sp.</i>	izokin
salmonete	<i>Mullus sp.</i>	barbarin
sardina	<i>Sardina pilchardus</i>	sardina
sargo	<i>Diplodus sargus</i>	muxar handi
tiburón / marrajo	<i>Lamnidae (fam.)</i>	marrazo
tolla		tolla
tortuga	Puede pertenecer a varias especies	dortoka
trucha	Puede pertenecer a varias especies	amuarraín
verdel / caballa	<i>Scomber scombrus</i>	berdel
vieira	<i>Pecten sp.</i>	bieira

















*Itsasoarekin
zerikusia daukaten*

Atsotitzak

*Itsasoarekin edo Pasaiarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

*Itsasoarekin
zerikusia daukaten*

Atsotitzak

Talaierorik onena, andre alarguna:
beti itsasoari begira

La mujer del marinero a la mañana
casada y a la tarde viuda

Gu Ameriketara abiatuz gero,
itsasoa agortuko litzateke

La desgracia a la puerta vela,
y en la primera ocasión se cuela /
La fortuna nos manda

Andrea, sua eta itsasoa, hiru galbide

El juego, la mujer y el vino
sacan al hombre de tino

Arrain handia, itsaso handia

En río grande, grandes peces

Gu behartu orduko, itsasoa agortu

En la necesidad se ve la amistad /
Pobreza nunca alza cabeza

Diruak itsasoan ere bidea egin

Asno con oro, alcánzalo todo.

Erreka oro itsasora ari

El que nace, debe morir

Itsasoari esana: «Hi ere
ezkondutakoan domatuko haiz»

Casarás y amansarás

Haizearen beha egon zen ontzia,
portuan usteldu

Quien de esperanza vive,
de hambre muere

Baditu itsasoak bere gorabeherak

Toda subida tiene su bajada

Itsasoan luzaroan ibiliak begi gorriak /
Itsasoak bere lekua behar du /
Itsasoan ez dago jesarlekurik

Cada cosa en su sitio

Itsasoa ere ezkundu bazen, parauko zen

Casarás y amansarás

Itsasoa igaro eta bazterrean ito

Nadar, nadar, y a la orilla ahogar

Itsasoak eman eta eraman

Lo que el mar te da te quita

Itsasoak errekak, iturriak
eta ibaiak iruntsi.

Los ríos van a parar en la mar

Itsasoari esana: -Harro hago baina
ezkontzen haizenean
domatuko haiz hi ere

Casarás y amansarás

Itsasoko legeak ona on
eta gaiztoa mesura gabeak

Las leyes del mar las buenas,
buenas y las malas sin medida

Marinel tormentatuek bere tormentetan
anitz promes eder egiten dute

Si quieres aprender a orar,
entra en la mar

*Itsasoarekin
zerikusia daukaten*
Atsotitzak

Marinelak, denbora eder denean,
bela egiten du

A la ocasión la pintan calva

Marinelak urik ez dagoelako
ura edan behar,
ura balego ardoa edango luke

Desea el calvo tener pelo,
y parecer bello

Marinel emaztea goizean senardun,
arratsean alargun

La mujer del marinero a la mañana
casada y a la tarde viuda

Mundu honek dirudi itsasoa,
igerika ez dakiena hondarrera doa

El que no nada se ahoga

Gure etxean oilarra urtean
behin eta horixe itsasokoa

Pobreza nunca alza cabeza

Ontzian denak kapitain, ontzia galdu

Unos por otros, la casa sin barrer /
Donde muchos mandan,
ninguno obedece, y todo perece /
El mandar no quiere par

Portuan ontzia, urruti irabazia

Quien no se atreve, no vence

Uholdea beldur itsasoan
kabituko ote zen

La noche temía, qué no llegara el día

Ur guztiak ilkitzen dira itsasotik

Los ríos van a parar en la mar

Ura itsasora eramaten /
Zekenak eta itsasoak,
sekula nahikorik ez /
-Zer moduz? -Itsasoan ontziak

Llevar leña al monte

Zerua eta lurra aspertuak omen zeuden
eta itsasoa egin zuten

No hay dos sin tres

Zoroei bakarrik gustatzen zaizkie gerra,
itsasoa eta ezkontzea

Ir a la guerra ni casar
no se ha de aconsejar /
Sólo a los locos les gusta la guerra,
el mar y el matrimonio

Edozein da arrantzale,
arraina goserik dabilenean

A río revuelto, ganancia de pescadores

Edozein da arrantzale,
antxoa «hemen nagoka» dabilenean

No hay mal piloto con tiempo bueno

Arrantzaleak ez du
erabiltzen urrezko amurik

Trabajando nadie se hace rico

*Itsasoarekin
zerikusia daukaten*
Atsotitzak

Arrantzaleak ur uherra desiratzen
arraina atzemateko

A río revuelto, ganancia de pescadores

Ibai nahasia, arrantzaleen irabazia

A río revuelto, ganancia de pescadores

Lehorreko arrantzaleak,
arrain gutxi saskian

Quien quiera pescar, que se moje el culo /
No se toman truchas, a bragas enxutas

Orekariak orekan,
arrantzaleak arrantzan

Zapatero a tus zapatos

Txalupan nagusi asko, arrantza gutxi

Donde muchos mandan,
ninguno obedece, y todo perece

Portuan ontzia, urruti irabazia

Quien no se atreve no vence



*Itsasoarekin edo Pasaiarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Boga, boga

Boga, boga, mariñela, mariñela!
Joan behar degu urrutira, urrutira!
Bai, Indietara! Bai, Indietara!
Ez det nik ikusiko
zure plai ederra;
agur, agur, Ondarroako itsaso bazterra!
Mariñela!
Boga!
Mariñela!

Ixil-ixilik

ixil-ixilik dago, kaia barrenian
ontzi xuri pollit bat uraren gainean. (bis)

Goizek'ordu bietan esnatutzen gera
arrantzaliarekin joateko urrutira.

Pasatzen naizenean zure leihopetik
negarrak irteten dit begi bietatik (bis)

Zergatik (5 aldiz) negar egin?
Zeruan izarra dago itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat, bat, bart parrandan ibili, bart
parrandan ibili.

Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili, ez naiz
ondo ibili.

Hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru,
kolkoa bete diru.

Lau, lau, lau, sardina bakalau.

Anteron txamarotia,
Singerren bigotia,
haretzek ei dauka, ei dauka
preso tximinoia.

Maite, maite

Maite, maite
ez ni utzi hemen kaian.
Maite, maite
zu nere bihotzean.

Maitetxo itsasora juan da
itsasontzi batean.
Maitetxo itsasoan dago
urrutirako bidean.

Maite, maite
ez ni utzi hemen kaian.
Maite, maite
zu nere bihotzean.

Maitetxo noiz etorriko da,
nere bihotza zain dago.
Maitetxo noiz etorriko da,
biok alkar bizitzeko.

Maite, maite
ez ni utzi hemen kaian.
Maite, maite
zu nere bihotzean.

Ilunabarra

Ilunabarra...

Eguzkia hasten da
hasten da jaitsitzen,
jaitsitzen, jaitsitzen
dizdizera ederra
zaiola gutxitzen.
Diamantezko printzak, printzak
zaizkanean jartzen,
jartzen, jartzen,
urrezko bola baten
itxura du hartzen
eta geldi-geldikan,
itsaspean sartzen

*Itsasoarekin edo Pasaiaarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Eta geldik, geldik
eta geldik, geldik,
eta geldik, geldik
geldirikan
itsaspean sartzen
sartzen

Itsaspean
sartzen, sartzen

Itsasoan urak handi dire

Zazpi laguneko famili batetan
arotza zen gure aita
gure herriko alkate ez izan arren,
lan egiten zuena.

Itsasoan urak handi dire,
murgildu nahi dutenentzat
gure herriko lanak handi dire,
astun dire, gogor dire,
zatituri gaudenontzat.

Markatzen ari diren bide nabarra
ez da izango guretzat,
lehengo sokari ezarririk datorren
oztopo bat besterik.

Itsasoan...

Hainbeste mendetako gure morrontzak
baditu mila tankera
eta, zuhur aukeratzen ez badugu,
bertan galduko gera.

Markesaren alaba

Zeruak eta lurak egin zituen
memoria argitzera zator neregana;
esperantza badaukat zerorrek emana
kunplituko dudala desio dudana.

Amodiozko penak oraingo honetan
publika ahal banintza bertso berrietan;
enteratu naiz ongi enkargu horietan
San Jose arratsaldeko hiru t'erdietan.

Markes baten alaba interesatua
marineruarekin enamoratu
deskubritu gaberik bere sekretua
amodioa zeukan barrena sartua.

Egun seinalea zen gogoan hartzeko
esan ziola haren etxera joateko.
–Deseo dudan hitz hau manifestatzeko
zurekin, Antonio, nago izateko.

–Zer esaten didazu? Juanita, hitz hori,
tentatzen ari zarela trazak badirudi.
Ez zait gure graduak tokatutzen niri
ez burlarika egin marineruari.

–Eduki dezakezu ongi sinistua
aspaldian nengoela zutaz gustatua.
Ez zaitut nik utziko desanparatua
hala egiten dizut gaur juramentua.

Konformatu ziraden elkarren artean
ezkonduko zirela hurrengo urtean.
Eskola ikasteko bien bitartean
beraren herritikan guztiz apartean.

Hala disponiturik jarri ziren biak
kartaz ententitzeko elkarren berriak.
Formalidadea(re)kin jartzeko egiak
baina ez ziren lo egon amaren begiak.

–Alferrik izango dira haserre gurean
ez naute mudatuko eternidadean.
Esposatu nahi nuke kariño onean
Antonio Maria etortzen denean.

Ezin egon zen ama hitz hori sufritzen,
berehala hasi zen kartak detenitzen,
intentzio haundiagoz ezkontza galdutzen;
Juanitak holakorik ez zuen pentsatzen.

Amaren malezia! korreora joan da
Antonio hil zela egin zuen karta;
Juanitaren tristura berri hura jakinda
engainatua bestek gezur bat esanda.

Amak esaten dio: Juanita nerea
galdu da, diotenez Antonio Maria.
nik bilatuko dizut beste bat hobea
maiorazko, interes askoren jabea.

–Ama ez niri esan horrelakorikan
ez dut nik besteengana amodiorikan.
Ezin alegre leike nere barrenikan
komenientzia ona izanagatikan.

*Itsasoarekin edo Pasaiaarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

–Utzi alde batera horrelako lanak
ez ditut nik ikusten zu bezala damak.
Nahi badituzu hartu onra eta famak
giatuko zaituzte aitak eta amak.

Denbora kunpliturik galaia abian
zer pasatu ote zen haren memorian
kartarik hartu gabe joan den aspaldian
inozente sartu zen jaio zen herrian.

Hau da lehendabiziko hark esan zuena.
–Zer da musikarekin onratzen dutena?
Markesaren alaba kalean barrena
esposario zela hark behar zuena.

Desmaiatu egin zuen ordubete
gero nobia eske hitz bi egin arte
inguratu zitzaion makina bat jende
bigarren ordurako hil zen derepente.

Gaua pasatu eta hurrengo goizean
entierroa zuen bigarren klasean.
Markesaren alaba guztien atzean;
zer pena izango zen haren bihotzean?

Penarekin leherturik Antonio hil zen
akonpainatu zuen Juanitak elizan.
Maitasuna bazion esan dudak gisan
geroztikan ez zuen osasunik izan.

Erremedia baledi sentimendu hori
bitarteko bat jarri Jesus maiteari
orazio eginaz Birjina Amari
zeruan gerta dadin Antonio Mari.

Elkarren konpainian guk ere nahi dugu
Birjina egiozu Jaunari erregu
kristau guztiogatik baldin ahal bazenu
Iturrinok horrela desiatutzen du.

Brodatzen ari nintzen / Neskatxa ontziratua

Brodatzen ari nintzen,
ene salan jarririk;
aire bat entzun nuen
itsasoko aldetik;
Itsasoko aldetik,
untzian kantaturik

Brodatzea utzirik,
jin nintzen amagana:
hean jaliko nintzen
gibeleko leihora
gibeleko leihora,
itsasoko aldera

Bai habil, haurra habil,
erran kapitainari
jin dadin afaitera,
hemen deskantsatzera
hemen deskantsatzera,
salaren ikustera.

Jaun kapitaina, amak
igortzen nau zugana
jin zaiten afaitera
eta (hantxe) deskantsatzera,
hantxe deskantsatzera,
salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta
hori ezin egina
iphar haizea dugu
gau behar dut aintzina
ezin ilkia baitut
hauze da ene pena.

Andre gazte xarmanta
zu sar zaite untzira
gurekin afaitera
eta deskantsatzera
hortzet deskantsatzera
salaren ikusterat

Andre gazte xarmanta
igaiten da untzira,
han emaiten diote
lo belharra papra
eta untzi handian
lo dago gaixo haurra.

jaun kapitaina nora
daramazu zuk haurra?
Zalu itzul nezazu
hartu nauzun lekura,
hartu duzun lekura
aita-amen gortera

*Itsasoarekin edo Pasaiarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Ner mariñel ona
hedazak heda bela
beti nahi nuena
jina zaitak aldera
ez duk hain usu jiten
zoriona eskura

Jaun kapitaina,
nora ekarri nauzu huna?
Zalu itzul nezazu
hartu nauzun lekura.
hartu nauzun lekura,
aita-amen gortera.

Andre gazte xarmanta,
hori ezin egina,
hiru ehun lekutan
juanak gira aintzina...
Ene meneko zira,
orai duzu orena...

Andre gazte xarmantak
hor hartzen du ezpata
bihotzetik sartzen ta
hila doa lurrera!...
Aldiz haren arima
hegaldaka zerura!

–Nere kapitain jauna:
hauxe duzu mahurra
–Nere marinela ona
nurat haurtiki haurra?
–Norat haurtiki haurra?
hoxtxet itsas zokora

Hiru ehun lekutan
dago itsas lehihorra:
Oi Ama Anderea,
so egizu leihora...
Zure alaba gaixoa,
uhinak darabila.

Baionatik Bilbora

Badu nora heldu,
ez du zeri heldu,
itsaso hutsa da
nire herria.

Baionatik Bilbora
itsaso errea
putzu honek
ez du itoko
gure haserre.

Baionatik Bilbora
itsaso barea
maria behetik gora
zer bakardadea.

Baionatik Bilbora
itsaso antzua
han zuen harro utzi
Okendok zantzua.

Baionatik Bilbora
lapa ta lanperna
handikan honeraino
Okendoren pena.

Baionatik Bilbora
itsaso petrala
aspaldi esan zidaten
besterik ez zala.

Baionatik Bilbora
itsaso aingura
nadila zure albora
oraindik ingura.

Baionatik Bilbora
itsaso zakarra
baldin baneki nora
kamino bakarra.

Baionatik Bilbora
itsaso pobrea
non du aurkitu behar
Euskadik hobia.

Baionatik Bilbora
itsaso euskara
Baionatik Bilbora
galduak ez gara.

*Itsasoarekin edo Pasaiaarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Baionatik Bilbora
itsaso gorria
Baionatik Bilbora
gure memoria.

Bilbotik Baionara
alua itsasoa
iheri ez dakiena
hondarrera doa.

Pasaiaiko herritik

Pasaiaiko herritik dator notizia
zezen bat izan dala jenioz bizia
kantatutzero nua bistan ikusia
alegratzeko triste dagoen guzia.

Santiago eguna Pasaian seinale
ailegatu eztanak egin beza galde
hasieran jendia zezenaren alde
azkenean etziran arrimatu zale.

Gure Pasaia beti sonatua dago
errapin gabe ezta urte bat igaro
urrengoan jarriko dituztela nago
barrera hestuago edo zezena handiago.

Torillotik atera zuten lehendabizi
behi zar bat gidaria bandera ta guzi
harrapatzen zuena purrukatzen hasi
azkenean kanpora plazatik igesi.

Hiru komertzianta plazatik kanpoan
poxpolo ta barkillo labaina tratuan,
pareta egon arren hamar oin altuan
panparroi pasatu zen putzura saltuan.

Hoiek horrela eta gehiago ere bai
lurrian ziraldoka egin zuten lasai
ezkonberriak eta zenbait dama galai
zezenaren mendian etzuten jarri nahi.

Plazatik itsasora salta da igeri
adarrak besterikan etzuen ageri
bakerua begira bere zezenari
eserita jan ditu hiru libra ogi.

Pasaiaiko huelga

Milla bederatzi eun kunplitu eta
emeritzagarren urtian,
huelga baten bidez okertu
gera Antxo'ko partian;
buruzariya balititz bezela
oiartzuarren tartian,
guri bengantzan asi zerate
oso gorroto fuertian;
beti goguan izango degu
bizirik geran artian.

Bertso berriyak jartzera nua
nai dituanak ikasi,
asuntu hori onratu gabe
ezin nezake nik utzi;
oiartzuarrak Antxo aldian
ez gaituzte nai ikusi,
txori batzuek joan diralako
kaiolatikan igesi,
langilliari burla egiñaz
alperrak daude nagusi.

Huelga hortan eskatu ziran
lau kondiziyo berriyak,
bañan etziran orko maisuak
Oiartzun'dik etorriyak;
iduritzen zat ote gauden gu
libru berdian jarriyak,
lenago alde genituenak
kontra ditugu erdiyak,
artzai gaiztuak diran tokiyan
pagatutzen du ardiyak.

Portu artako kontratista bat
gizona balientia,
Goiarri'tikan etorriya da
euskaldun korrientia;
urte batzuak baditu baña
gorputza dauka tentia;
oiartzuarrak badadukagu
orrentzat borondatia,
San Estebanez fiesta da eta
naiko genduke joatia.

Oiartzuarrak ez diyote egin
jaun orri ustez gaitzikan,
zentruak esan digun legera
errenditzia baizikan;

*Itsasoarekin edo Pasaiaarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

beraren kontra ez degu esan
tokatzen ez den itzikan,
pasa diranak esplikatzeko
ez daukagu lotsikan,
begiyak balak baldin balitu
tirako luke pozikan.

Mualla ortako kapataz batek
propina asko artzen du,
berari zerbait eman ezker
lanian azkar sartzen du;
neonek ez det ikusi baño
jendia prankok esan du,
erregaliyak izugarriyak
nola dituen izandu;
badauka zefiek gobernatua
nai baldin badu gizendu.

Inbusterruak ez izatia
degu guretzat kaltian,
gizona zail da ezagututzen
pruebak ikusi artian;
"Tori ollua!" –esanaz jua zan
aurreko egun batian–;
ardo-puska bat ez da paltako
orren iztarrak jatian".
Iana aguro agindu ziyon
sartu zanian atian.

Iñoz suertez jartzen bazaizkit
gizon oriyek aurrian,
alde artara begiratzen det
triste ta gogo txarrian;
zenbait naigabe sufritzen degun
bizi garenak lurrian,
ardi gaiztuak paotxa jaten,
onak gosiak larrian,
gauz ori bera pasa zitzaigun
Karlosen gerra zarrian.

Leku askotan ikasi dute
Antxo'ko jornalari berri,
ta berak ere adierazten
or dabilta erriz erri;
Irun'dik eta Ondarrabi'tik
jende asko da etorri,
beste batzuak abisatuta
Goiarri'tika ekarri;
emen dagona ez da besterik:
bengatu naia elkarri

Zelebria da gizon batzuak
egin dutenajustia
lantegi (y)orren segurantziya
ez dute gutxi kostia;
gero're oiek ez da komeni
edozein modu uztia,
olluarekin etori zan bat,
solomuakin bestia;
nik ere pozik jango nituke,
jenero txarrek ezta.

Nola presari eragin eta
pasatzen dan ugaldia
ala berian kanpotarrekin
bete da Antxo aldia;
gu lanik gabe onla uzteko
oiek zeukaten zalia,
au da batere asarre gabe
egiten degun galdia:
oiartzuarrak bestiak baño
eskasaguak al dia?

Miseriyarik ez daukagu
edanian ta janian,
gure gorputzak argatik daude
onen estadu onian;
estimatuak izaten giñan
besterikan etzanian,
orduana bañan eskasaguak
orain ez gaude lanian;
edozein burla egiten dute
komententziya danian.

Usteko zuen orren kontuak
ez ditugula jakindu,
bestiak baño aldrebesago
utsa ikusi bagindu;
gure kuadrilla asarre dago,
askok biotzian min du;
zarrak etxian geldi daudela
besteri lana agindu,
Pasai San Joan'go ollo jaliak
aziyo txarra egin du.

Altza gañeko beste gizon bat
dabil Antxo inguruan,
gu bajatzia beste gauzarik
ez dabilkana buruan,
eskirolakin unitu eta
altubeneko graduana;
gizonez gizon jarri zaitezte
oiartzuarran onduna,

*Itsasoarekin edo Pasaiarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

zein dan langille balientia
ikusiko da orduan.

Orren ideia zer izango zan
aguro niyon igarri,
bere galoiak gora altxatzen
enpeñatuta da larri;
atzo gizon bi izketan zeuden,
atenditutzen naiz jarri,
sujeto orrek zer egin duban
esan ziyoten elkarri:
"Biba euskera!" maiz oju egin,
kastillanuak ekarri.

Oraingu ontan izandu dira
asunto izugarriyak,
bañan gugatik ez du merezi
desonratzia erriyak;
gusto duanak ikasi bitza
hamasei bertso berriyak,
muallan lanik etzeukan eta
Trajinos Beltzak jarriyak;
aditu nai eztunik bada
itxi bitza belarriyak.

Bat.bi hiru, lau

Bat, bi, hiru, lau
Bost, sei, zazpi,
pasaitarrek, estropetan
irabazi, aurrera!

Balearen bertsoak

Mila bederatziehun da
lehenengo urtian,
maiatzaren hamalau
garren egunian,
Orioko herriko
barraren aurrian,
balia agertu zan
beatzik aldian.

Haundia bazan ere
azkarra ibilian.
Buelbaka han zebilen
juan da etorrian,
hondarra arrotuaz
murgil igarian.
Zorriak zeuzkan eta
haiek bota nahian.

Ikusi zutenian
hala zebilela
berihala juan ziran
traineruen bila.
Arpoi ta dinamita
eta soka bila.
Aguro ekartzeko
etzan jende hila.

Bost traineru juan ziran
patroi banarekin.
Mutil bizkor bikainak
guztiz onarekin.
Manuel Olaizola
eta Loidirekin.
Uranga, Atxaga ta
Manterolarekin.

Baliak egindako
salto ta marruak
ziran izugarri ta
ikartzekuak.
Atzera egin gabe,
hango arriskuak,
arpoiakin hil zuten
han ziran hanguak.

Bost txalupa jiran da
erdian balia
gizonak egin zuten
bai nahiko pelia.
Ikusi zutenian
hila edo itoa
legorretikan bazan
biba ta txaloa.

Hamabi metzo luze
gerria hamar lodi.
Buztan palak lau zabal
albuetan pala bi.
Ezpainetan bizarrak
beste ilera bi
orraziak bezela
hain zeuzkan ederki.

Gorputzez zan mila ta
berrehun arrua.
Beste berrehun mingain
ta tripa barruak.
Gutxi janez etzegon
batere galdua.
Tinako sei pesetan
izan zan saldua.

*Itsasoarekin edo Pasaiaarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Gertatua jarri det
egiaren alde.
Hau horrela ez bada
jendiari galde.
Bihotzez pozturikan
atsegintsu gaude.
Gora oriotarrak
esan bildur gabe.

Arrantza

Itsasoa da beti
lurrari musuka,
ta lurra ogi-eske
laztanaren truka...
Alkar-maiteak dira
biak, ezin uka,
aldiz eginagatik
hasarre burruka.
Oriotarren kezka
minena da barra;
itsasorako duten
ur-bide bakarra,
ogi-bila joateko,
igaro beharra,
heriotza dutela
zelatari zaharra...
Oinez motela baita
antzara, ur-zale...
Hainbat arrantzalea
nagi kalez kale...
Bere otarrarekin,
behartsu-maitale;
dunean ase ditu
hamaika eskale.

Txuriko

Gu gazte giñadela txalupa guziak
zakurtxo bat ohi zuten ontzi barrenean
begi erne, abilla, ez zen zaunkaria
ihes zihoan arraia harrapatzailea

Seme esango dizut nola gertatzen zen
puñittutako arraia, suelto batzuetan
legatza ospa, ihes, txakurra jauzten zen
ta bet-betan arraia hartzen
zuen hortzetan.

Lana horren saria "txakurraren partia"
deitzen genuen guziok, ongi merezia
maitea-maitea zen txakur ehiztaria
txalupa betetzen zuen anima gabeak.

Unea etorri da zuri kontatzeko
zer nolako txakurra zen gure Txuriko
uhin izugarriak ez zuen izutuko
arraia utzi baino, lehenago itoko.

Goiz itsusi batean ez naiz ez ahaztuko
bere lana beteaz jauzi zen Txuriko
baga haundi artean, ehiza ez utziko
legatz haundi batekin ito zen betiko.

Joxe Migel

Joxe Migel,
Migel Joxe,
Joxe Migel,
Migel Joxeren batela,
Joxe Migelen batela,
txitxarroa ta berdela,
Joxe Migelen batela,
txitxarroa ta berdela.

Beti ezkamak kentzen

Beti ezkamak kentzen,
kentzen, kentzen,
kentzen, kentzen, kentzen.
Beti ezkamak kentzen,
kentzen, kentzen,
kentzen, kentzen.

Zer gara gu?,
nor gara gu?
Euskotarrak gara gu. (Bis)

Oroimeneko portua

Ifar aldeko portu zaharra
ekar dezagun kantara:
kale bustien sentimendua,
edalontzien ikara.

Marinelen hitz arrotzak baina
ginebra onaren dirdira,
gau biluzia sartzen zitzaigun
begi zabalen ninira.

*Itsasoarekin edo Pasaiarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Gau erdiaren eremuetan
laban ahoak aidera:
izar isilen argi azpian
odol beroa lurrera.

Txanpon berriez erosi eta
amodioen jokora,
ohe hestutan etzuten ginen
itsas lamien altzora.

Kanta lizunen alegantzia,
akordeoien tristura:
ez gara egundo,ai, itzuliko
oroimeneko portura.

Amets, amets egin

Amets, amets egin itxas gizona,
amets, zure ametsa gerta leikela.

Berriz etorriko zera Ondarru'ko kaiera,
han daukazu maitea, itxaroten dezuna,
berriz etorriko zera, zure txaluparekin,
han daukazu maitea ta bihotza.

Han daukazu maitea ta biotza.

Belazko untzia

Zazpi urte baditu, uraren gainean ginela,
sei urteren janaria baizik gurekila ez ginuela,
zazpigarrenean jan ginituen txakurra eta gatua.

Ene mutilik ttipiena, ene mutilik maitena,
habil harat, habil hunat, mastanoaren puntara,
mastanoaren puntara eta, ageri denez leihorra.

Nagusia heldu nitzaizu bihotza arras tristerik,
ez dut ikusi leihorrik, ez eta ere belarik,
jan nazazie, jan nazazie, jan beharra naiz lehenik.

Ene mutilik ttipiena, ene mutilik maitena,
habil harat, habil hunat, mastanoaren puntara,
mastanoaren puntara eta, ageri denez leihorra.

Nagusia, heldu nitzaizu, bihotza alegerarik,
ikusi dizit londrese, bai eta ere huraxe,
zure arreba dendaria, josten ari da leihoan.

Habanera

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
banilla gozo artean,
itsaso urrun batetan
irudimena galdurik
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla fiñak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzean.

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikaran
etsipenaren tamalez,
gaua zelatan dakusat
kontzientzia bilutsik
badoaz orduz geldiak
gogorapenen hegalez.

Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz
sukartutako ametsetan
algarak entzuten ziren
Habanako putetxetan,
abanikodun mulatak
gauari haize egiten
musiken aide nagiek
odola erretzen zuten.

Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro

*Itsasoarekin edo Pasaiarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

Itsasontzi baten

Itsasontzi baten
Euskal Herritik kanpora
naramate eta ez dakit nora.(Bis)
Agur nere ama
laztan goxoari
Agur nere maite politari
ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari
Itsas ontzi...
Agur senideak
agur lagunari
egur Euskal Herri osoari.
Ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari.
Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari.

Gaztelugatxe

Seiehun urte inguru
kosta aldean zen gertatu,
itsasgizon zahar batek
behintzat hala zidan kontatu,
enbat itzelak Gaztelugatxen
untzi eder bat zuen hondatzen,
euskaldunontzat barruan
altxor haundiak ei zekartzan.

Igaz udako goiz batez
eguzkiaren lehen printzez
jo nuen itsas barrena
bihotza dardara eginez,
murgildu nintzen ur gardenetan,
arakatu ongi hare-haitzetan,
han zegoen tinkaturik
goroldioak estalirik.

Igaz udako goiz batez
eguzkiaren lehen printzez
jo nuen itsas barrena
bihotza dardara eginez,
murgildu nintzen ur gardenetan,
arakatu ongi hare-haitzetan
han zegoen tinkaturik
goroldioak estalirik.

Indar guztioz bultzatzen
altxor kutxa zabaldu nuen,
atzera egin ninduen
uhin haundia altxatu zen,
inor ez zapaltzeko gogoa,
zapalduak ez izatekoa,
hau da gure urguilua
altxor guztien iturria.

Eta hau hola ez bazan
sar nazatela kalabazan,
ipui txit barregarriak
kontatu nizkizuen plazan.

Kapitain pilotu

Txalupa txiki honetan
horrenbeste lagun
lagun, lagun
ez dakit zer biaje
atera behar degun
kubiertan lekuri ez
bodega txikia
ez dakit zer biaje
atera behar degun.

Hauxen da barko berria
hauxen da barko berria
ondo kostata ekarria
ekarria.

Ni naiz Kapitain Pilotu.
zu zera Kapitain Pilotu.
neri behar zait obeditu
obeditu.

Heltzen badiot kraxketan
bonbilo bonbilo behera
Heltzen badiot norbaiti
Bonbilo bat, bonbilo bi
Bontilo putzura erori.

*Itsasoarekin edo Pasaiaarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Guk euskaraz

Guk euskaraz
Zuk, zergatik ez? (Bis)

Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen, (Bis)
eta zuek denok
ur gazi bat atera zenuten
handik nekez. (Bis)

Guk euskaraz...

Orain zuen birtutez
zuen indarrez (Bis)
euskara
itsaso urdin
eta zabal bat
izanen da
eta guria da. (Bis)

Itsasoa laino dago

Itsasoa laino dago
Baionako barraraino,
nik zu zaitut maitiago
arraitxoak ura baiño.

Itxas-Aita, ur alorra
Ama Lurra'ren senarra,
bizi-iturri illezkorra
gure poz eta negarra.

Hondarribi, itxas herri
lamiaren amets kabi,
mariñelen bizi-toki
maitietan maitagarri.

Itsasoa laino dago
Baionako barraraino.
Nik zu zaitut maiteago
txoriak bere umeak baino.

Aita gutaz oroit dago
lainopean gaueraino.
Nik zu zaitut maiteago
arraitxoek ura baino.

Afaria suan dago,
bero beroa sarridino.
Nik zu zaitut maiteago
egur onak sua baino.

Izar zuriz mila dago
iparretik hegoraino.
Nik zu zaitut maiteago
ilargiak gaua baino.

Lo egizu, egizu lo,
deskantsuan bihar artio.
Nik zu zaitut maiteago
gau beltzean loa baino.

Orain haurra hor lo dago;
lo egizu aingeruño.
Nik zu zaitut maiteago
zure aitak nihurtu baino.

Donostiako balearen bertsoak

Luis Gaiztoak'k emanik
lenengo arponada,
balia harrapatzeko
txit gizon ona da;
estimatzekoa zan
halako jornada,
beratzi mila errial
bazuen jornala.

Nere herri maitea

Nere herri maitea
alegratu, bai, jendia
bisiguak ez du eman
aurtengo urtian
Triai lara lara larai
Antxoak emango du
etortzen danian
irabaziko degu
aukera danian.

Askatasuna eskatzen diogu
herri hontako alkate jaunari
eta jendia alegaratzearren
gu gerala herri honetara etorri

*Itsasoarekin edo Pasaiarekin
zerikusia daukaten*

Abestiak

Mutil gaztiak egonagatik
Ondarruako neska gaztiak
ez diralako ondo pintatzen
ondo garbitu ta gero ere
ez dala erraza izango
denak ezagutzen.

Udaberrian txoriak
alegre jartzen diran moduan
gu ere alegre gatoz
triste egonagatik neguan.

Gure herri maitea...

Aukera danian!!

Itsasotikan

Itsasotikan gatozenean
arra! gabe etxera
andre zantarrak bidaltzen gaitu
afaldu gabe ohera.

Ohera joan ta popia eman
hauxe betiko kontua
holako andrakin ezkontzen dana
ez da makala tontua
holako andrakin ezkontzen dana
Ez da makala tontua.

Lekeitioko kalean

Lekeitioko kalean
bisigu denbora danean
larai lara.

Hogeit txitxarro eta gehiago
sartzen dituzten sabelean
baina guztiak batean
lara lala, lara lala, lara lala.

Egun batean Ispazterren
apostu txiki bat egin nuen
larai lara.

Jango nuela, goizetik gabera
hamar erraldeko txala
Txanton laugarrengo zala
lara lala, lara lala, lara lala
Laralaaaa.

Pum!